

hondamen egoeraren bati aurre hartzeko moduan egon gaitezen, horrelakoak berriz gertatzeko arriskua bai baitago.

Hortaz, gure iritziz, egin beharreko lehenengo gauza, lanean hasteko ezinbestekoa, azaroaren 25eko bileran erabaki genuen moduan, eraginda dauden administrazio guztien ordezkariak osatutako batzorde bat eratzea da, lehenbailehen eratu gainera. Ez dugu ulertzen nolatan URAk ez duen orain arte eratu eta deialdirik egin.

Horregatik, ordezkatzeko ditugun administrazioen izenean, hona hemen gure ESKAERA:

Lehena.- Sor dadila berehala eta presaz eraginda dauden administrazio guztiez osatutako batzorde bat, batzordeko partaide Eusko Jaurlaritza, URA Agentziaren bitartez, Astigarraga, Donostia eta Hernaniko Udalak, Añarbeko Uren Mankomunitatea, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kantauriko Ur Konfederakundea eta Ingurumen Ministeritza (Itsasertzarako zerbitzu probintziala) izanik.

Bigarrena.- Egin dadila berehala batzorde horren bilerarako deia, bilera horretan, beste batzordekideek egoki jotzen dituzten bestelako gaiez gain, honako kontu hauek jorra daitezen:

1.- Urumea ibaiaren lehentasuna Autonomi Elkarteari dagokionez eta Urumea ibaian bertan egin beharreko lanen arteko lehentasunak.

Gure ustez ezinbestekoa da URA Ur Agentziak argi eta garbi eta zehatz-mehatz erabakitzea, adierazpen orokorrak alde batera utzita, zein den 2007ko azterlan hidraulikoan Urumea ibaiarentzat proposatutako ekintzen artean lehentasunezkoa URAk Euskal Autonomi Erkidegoan gai honen inguruan egin beharreko bestelako ekintzekiko. Eta, beharrezkoa da, halaber, URAk argitzea lehentasun horri eta Urumea ibaian egin beharreko lan horiei zenbateko kontsignazio ekonomikoa eskaini diezaiokeen eta eskainiko dion.

Bestalde, ikusirik egunkarietan hainbat berri datozela Gipuzkoako ibaietan egin beharreko hobetze lanez, jakin nahi dugu ea URAk edota Eusko Jaurlaritzako beste erakunderen batek ba ote duen Urumea ibaian izandako uholdeen artxibo historikoa, eta hura lortzerik balego. Esaterako 1900. urtetik gaurdaino izandako uholdeen berri izatea, eta bakoitzean Urumeak gure herrietako kokagune desberdinetan harturiko ur-maila eta egindako kalteen laburpena jasotzea nahiko genuke.

Dauzkagun baliabideak zenbatekoak diren jakinda bakarrik egongo gara 2007ko azterlanean Urumea ibaiarentzat aurreikusitako lan guztien artean lehentasuna zeini eman erabakitze moduan eta, horrekin lotuta, lehentasun hori gauzatzeko lanari ekiteko prest. Gauzak horrela, gure iritziz, egin beharreko ekintza guztien arteko lehentasunak finkatzeko

lana batzorde horretan egin beharrekoa da, eragindako administrazio guztiak egongo baitira ordezkaturik.

2.- Ekintzen egutegia finkatzea eta ekintza horiek burutzeko erantzukizuna hartzea.

2007ko azterlanean jasota dauden ekintzetako edozein gauzatu ahal izateko alde zuretik lan handia egin beharra dago, esate baterako, kasuan-kasuan, egitasmoa teknikoak prestatu, beharko den lurra eskuratzeko egin beharreko atze-aurreak egin edo hirigintzako esku-hartzeak garatu. Nolanahi ere, behar dena zera da, egin beharreko lan guztiak egin ahal izateko denbora eta finantzaketa.

Egin beharreko lanak eta horien aurreko esku-hartzeak gauzatzearen erantzukizuna askotan eragile desberdinen kontua denez, eta gure nahia uholdeen eragin suntsitzailea epe ertainean gutxitzeko ekintzak egia bihurtzea izanik, batzorde horretan eragile guztien lana koordinatzeko gutxieneko oinarriak finkatu behar ditugu eta, horretarako, egin beharreko ekintzen plangintza eta programazioa adostu eta erabaki egin beharko dugu: esku-hartzeak zehaztu, nori burutuko dituen eta lan horiek egiteko zenbat denbora beharko dugun.

Ezin ahanztu dezakegu ekintza hauek gauzatzeko egin beharreko lana, borondatezkoa izanda ere, koordinaturik egiten ez baldin bada ezin izango dela benetako ezer garrantzitsurik egin, eta horrek zera ekarriko du, berriz ere uholdeak gertatzen direnean, gertatuko baitira, ezinbestez, gure udalerriek berriz ere ondorio latzak jasan behar izatea.

Azken batean, gure ustez, finkatu genuen "ibilbide orria" onartu behar dugu administrazio guztiek batzorde honetan eta, horrekin, bakoitzak, baina den-denek, dagozkigun konpromisoak eta oinarrizko obligazioak hartuko ditugu gure gain.

Horri dagokionez, gainera, esan nahi dugu premisa hauek finkatzea alde zureko kontua dela, oinarritzkoa eta ezinbestekoa, eta ezin duela batzorde teknikoaren lanak ordezkatu, izan ere batzorde tekniko horien berezko zeregina da konponbidea bilatzea 2007ko azterlanean jasotako ekintza zehatzekin lotuta unean-unean sortzen diren arazo ez antolakuntzazko edo plangintzazkoak. Abiapuntuko irizpidea izan behar du batzorde teknikoek lan egin behar dutela inplikaturik erakundeek osatutako batzordeak prestatzen duen "ibilbide-orrian" adierazitakoetatik abiatuz.

3.- 2007ko Azterlan Hidraulikoaren osagarria.

2007ko azterlan hidraulikoan jasota dauden proposamen asko eta asko udalaren hirigintza planeamenduan jasota zetozen aurreikuspenak kontuan harturik egin ziren. Hala ere, azterlan hau egin zenez geroztik gaur egun arte denbora tarte luzea igaro denez, ordezkatzeko ditugun hiru udalerriek beren planeamendu orokorrak berriro dituzte eta, ondorioz, azterlanean jasotako hainbat proposamen berraztertzea egin beharko da. Egia da 2007an aurreikusitako ekintza haiei dagokien gehien-gehienetan ez dutela eraginik, eta horrek ez du galarazten, noski, jasotako ekintza horietako asko egitea, baina bai eskatzen du beste

batzuk berrazter daitezela, bestela ez gara arazo larriei irtenbide ematen ariko eta gure udalerritako hainbat eremu eta area Urumea ibaiaren uholdeen eraginaren mende uztera kondenatzen ariko ginateke.

Bestalde, gainera, denbora tarte honetan, tamalez, uholde gehiago gertatu dira eta gure udalerrietan egiaztatu ahal izan dugu mintzagai dugun azterlan hartan hainbat gabezia edo akats bazeudela, esate baterako eremu batzuk aztertu gabe geratu ziren, beste batzuetan ez zen neuririk hartu, etab., eta gure iritziz haxe da unea, daukagun informazio berria eskura izanik, azterlan hura osatzeko.

Hortaz, beharrezko jotzen dugu URAk 2007ko azterlanaren osagarria izango den beste azterlan bat egitea, kontu hauek guztiei irtenbidea emateko. Eta horri dagokionez esan nahi dugu, azterlan hura egiterakoan kontuan hartu ziren premisekin bat gatozen arren (ibaien luzera ur-masa aldatuen bidez ez handitzea eta Urumea ibaia ekologia aldetik egoera onean egotea), ezin dugula onartu benetan eraginkorrak diren neurriak edo irtenbideak ez hartzeagatik hainbat eremu konponbiderik gabe uztea eta zenbait hiri eremu behin eta berriz uholdeak jasan behar izatera kondenatzea.

Azterlan osagarria egitea eskatzen dugu, baina bitartean eta eperik laburrean, 2007ko azterlan hidraulikoak zehazturiko 18 ekintzetatik uholdeak ekiditeko onura handienak ekarriko dituztenak, eta bestelakoak ere, gauzatuak izan daitezen proiektuak edota lanak egin daitezela exijitzen dugu. Joan den azaroaren 25eko bileran 2004-2007ko azterlanaren 18 lan-proposamenetatik, lehena egitear zegoela aipatu zen, Euskotreneko zubia Donostiako Loiola auzoan ordezkatzearena, baina lotsagarritzat jotzen dugu 2. ekintza edo lana, urak berak egin behar izatea, hots, Urumeak izan zituen joan den 2011ko azaroaren 6ko uholdeek Hernaniko Elorrabiko zubia eraistearena. Gero, gertatu direnak jasan ditugu.

Hirugarrena.- Administrazio bakoitzak bere ordezkari izateko egokien jotzen duen pertsona izenda dezake, baina guk eskatu nahi genuke zeregin honetarako izendatzen diren agintariek izan dezatela idazki honetan aipatzen diren erabaki garrantzitsu horiek hartzeko moduko nahikoa gaitasun.

Prentsa-oharra:

Joan den azaroan bizitako uholde larrien eta beren ondorio garratzen ondotik, Urumea Plana deritzona martxan jartzeko lehen pausuak eman ziren, instituzioen arteko mahaia deituz. Bilerak bakarrik izan bazen ere, berari jarraipena emateko asmoz, aipa mahaia ofizialki osatu, eta ofizialki ere Urumea Plana bideratzeko parte hartu behar duten instituzio guztiei deia egin zaie.

Egoera horretan, Donostiako, Hernaniko eta Astigarragako Udalek URA Agentziari gutuna bidali zioten urtarrila amaieran, ofizialki Urumea Plana bideratzeko instituzioen arteko mahaia osa dadin eskatuz. Gutun honek, aipaturiko hiru Udalek segidan aurkituko duzuen adierazpena jasotzen zuen bere baitan.

Hiru udalerriek, gainera, aipa lan-taldean euren ordezkariak izendatzeaz gain, komisioko horretan herritarrek izendatutako ordezkari bat egon behar duela eskatzen dute.

ADIERAZPENAK:

2004. urtean Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak Urumea ibaiaren inguruko azterlan bat eskatu zuen, 2007an burutu zena "Urumea ibaiaren antolamenduaren azterlan hidraulikoa, ibaiaren bokalearen eta Altzueta artekoa (Hernani)" dokumentuarekin. Azterlan horrek Astigarraga, Donostia eta Hernani udalerrietan egiteko hainbat lan proposatu zituen herri horietan izaten diren uholdeen ondorioak gutxitzeko asmoz, denak ere premisa hauetan oinarriturik: ibaiaren luzera ur-masa aldatuen bidez ez handitzea eta Urumea ibaia ekologia aldetik egoera onean egotea.

Alabaina, azterlanean jasotzen diren lan horiek guztiak, gaur gaurkoz, egin gabe daude, azken lau urte hauetan komunikabideek behin eta berriz horiei buruzko aipamenak egin izan badituzte ere. Egoera hau tamalgarria da, eta agerian uzten du mendetako jardungabezia publikoa, are gehiago kontuan hartzen badugu gure udalerriek joan den azaroaren 6an jasandako uholdeak eta gero, URA Ur Agentziak uholde horien ondorio latzak jasan zituzten administrazio guztiekin azaroaren 25ean egindako bileran egin zuen gauza bakarrik izan zela gauzatu gabe dagoen azterlan hori berriz ere mahai gainean ipintzea, bestelako konpromisorik zehaztu gabe.

Jakin badakigu neurri horiek edo arazoari irtenbidea bilatzeko proposatzen diren bestelako neurriak gauzatzea zaila dela, lan guztiak aurrera eramateko administrazio ezberdinen partaidetza behar delako eta, zenbaitetan, gainera, eragile ekonomiko pribatuena ere bai. Baina, hain justu horrexegatik, kontu gaitza dela badakigularik, beharrezkoa eta ezinbestekoa da gure ustez lanari lehenbailehen ekitea, ahal dugun neurrian beste